

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### OKONDOKO UDALA

#### **Merezimendu-lehiaketa bidez lanpostu hutsak betetzeko oinarri orokorrak eta espezifikoak onartzea, iraupen luzeko enplegua egonkortzeko deialdiaren esparruan**

2022ko maiatzaren 23ko alkatetza-ebazpenaren bidez aldi baterako enplegua egonkortzeko deialdiaren eraginpeko lan-eskaintza publikoa onartu ondoren, 2022ko abenduaren 9ko ebazpenaren bidez onartu dira udal honetako enplegua finkatzeko prozesu berezien deialdiak arautuko dituzten oinarri orokorrak eta espezifikoak. Oinarri horiek eranskin gisa jaso dira.

Okondon, 2022ko abenduaren 9an

*Alkatea*

*JON ESCUZA DEL CAMPO*

OKONDOKO HARANAREN  
UDALA  
(ARABA)



AYUNTAMIENTO DEL  
VALLE DE OKONDO  
(ALAVA)

**ALDI BATERAKO ENPLEGUA EGONKORTZEKO HAUTAKETA  
PROZESUAK ARAUTZEN DITUZTEN OINARRI OROKORRAK,  
ABENDUAREN 28ko 20/2021 LEGEAREN 6. eta 8. XEDAPEN  
GEHIGARRIETATIK ERATORRITAKOAK**

1- Oinarrien xedea

Oinarri hauen xedea da hautaketa-prozesuak arautuko dituzten arau orokorrak ezartzea, abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrietatik eratorritako aldi baterako enplegua egonkortzeko. Lege hori Okondoko Udalean enplegu publikoaren behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzkoa da, Arabako Foru Aldundiaren kudeaketa-gomendioa formalizatzeko hitzarmenaren arabera egiten ari dena.

Hautaketa-prozesu bakoitzaren berezitasunak dagozkien deialdietako oinarri espezifikoean arautuko dira, baina gutxienez honako hauek jaso beharko dituzte:

- Deitutako plazen identifikazioa, kopurua eta lotutako lanpostuak, eta, hala badagokio, sartzeko txanda.
  - Deitutako plazei lotutako lanpostuak eskuratzeko baldintzak: sartzeko titulazioa, hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-data, baita sartzeko beste baldintza batzuk ere (hizkuntzak, informatikako ezagutzak, etab.).
  - Merezimendu baloragarriak eta horien baremoa.
  - Emakumeen lehentasun-klausula aplikatze-ari edo ez aplikatzeari buruzko aurreikuspena.
- 20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrietatik eratorritako iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko deialdiari honako araudi hau aplikatuko zaio:
- Enplegu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bategina, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua.
  - 30/1984 Legea, abuztuaren 2koa, Funtzio Publikoa Berritzeko Neurriei buruzkoa.
  - 6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa.
  - 20/2021 Legea, abenduaren 28koa, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzkoa
  - 7/2021 Legea, azaroaren 11koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioi kidego eta eskalena, Euskal Autonomia Erkidegoko toki-administrazioei aplikagarri zaizkien guztian.
  - Osagarri gisa, martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretuak onartutako Estatuko Administrazio Orokorraren zerbitzupeko langileak sartzeko eta Estatuko Administrazio Orokorrako funtzionario zibilen lanpostuak hornitzeko eta lanbide-sustapena egiteko Araudi Orokorra.
  - 10/1982 Oinarrizko Legea, azaroaren 24koa, Euskararen Erabilera Normalizatzekoa.

**OKONDOKO HARANAREN  
UDALA**  
(ARABA)



**AYUNTAMIENTO DEL  
VALLE DE OKONDO**  
(ALAVA)

- 86/1997 Dekretua, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duena.
- 297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dena.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearena.
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.
- 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eraginkorrerakoa.
- 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzena.
- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa.
- 2/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Dokumentuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzkoa.
- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriari buruzkoa.
- Toki-araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen testuategina, apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua.
- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.
- Oinarri arautzaile hauek.

20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrietatik eratorritako iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko deialdiaren prozesua lehiaketa-sistemaren arabera artikulatuko da. Prozesu honetan txanda libre aurreikusten da.

## 2- Parte hartzeko baldintza orokorrak

Onartua izateko eta, hala badagokio, hautaketa-prozeduran parte hartzeko, baldintza hauek bete behar dira:

a) Europar Batasuneko estatu kideren bateko edo Europar Batasunak izenpetu eta Espainiako estatuak berretsitako nazioarteko itunen arabera langileen joan-etorri askea aplikatzekoa den beste estaturen bateko nazionalitatea edo nazionalitate espainiarra izatea, Europako Erkidegoa eratzeko Itunean definituta dagoen moduan.

b) Europar Batasuneko estatu kideetako herritarren ezkontideek ere parte hartu ahal izango dute, betiere Zuzenbidetik bananduta ez badaude, bai eta haien ondorengoek eta ezkontidearen ondorengoek ere, baldin eta bi ezkontideak Zuzenbidetik bananduta ez badaude, ondorengoak 21 urtetik beherakoak edo adin horretatik gorakoak badira eta beren kontura bizi badira (5/2015 LED, 57. artikulua).

c) Aurretiazko eskaera egitea.

**OKONDOKO HARANAREN  
UDALA**  
(ARABA)



**AYUNTAMIENTO DEL  
VALLE DE OKONDO**  
(ALAVA)

- d) Eskuratu nahi den eskalako edo lan-kategoriako zereginak betetzeko gaitasun funtzionala izatea.
- e) Hamasei urte beteta izatea eta, hala badagokio, nahitaezko erretirorako gehieneko adina ez gainditzea.
- f) Diziplina-espedientearen bidez Administrazio Publikoetako edo Autonomia Erkidegoetako Erakunde Konstituzional edo Estatutarioetako edozein zerbitzutik berezita ez egotea, eta ebazpen judizial bidez enplegu edo kargu publikoetarako, funtzionarioen kidego edo eskaletara edo lan-kontratuko langileen kategorietara iristeko desgaitasun absolutu edo berezia ez izatea.
- g) Beste estatu bateko herritarra izanez gero, ezgaituta edo egoera baliokidean ez egotea, eta bere estatuan, baldintza berberetan, enplegu publikora iritea eragozten duen diziplina-zehapenik edo baliokiderik ez izatea.
- h) Eskatutako titulazioa izatea, edo titulazio hori jasotzeko eskubideak ordainduta izatea. Titulazio hori berriazko oinarrietan adieraziko da. Atzerriko titulazioen kasuan, homologazioa egiaztatzen duen egiaztagiria eduki behar da.
- i) Atzerrian lortutako titulazioa duten hautagaiek dagokion baliozkotzea edo homologazioa egiaztatzen duen egiaztagiria dutela egiaztatu behar da.
- j) Hautaketa-prozesuaren barruan lanposturako (lan-kontratuko langileen kasuan) edo plazari lotutako lanposturako (funtzionarioentzat gordetako plazetarako) eskatzen den hizkuntza-eskakizuna duela egiaztatzea, edo hautaketa-prozesu honetan horretarako deitzen diren egiaztapen-probak gainditzea. Eskakizun hori betetzeko data dagokion hautaketa-prozesuko hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko proba egiten den eguna izango da.
- k) Herri Administrazioen zerbitzura diharduten langileen bateraezintasunen arloan indarrean dagoen araudian aurreikusitako ezgaitasun edo bateraezintasuneko legezko kausaren batean sartuta ez egotea. Hargatik eragotzi gabe kargu publikoa edo jarduera pribatu bateraezina betetzen dutenek aipatutako lege-arauetan aipatzen den aukera-eskubideaz baliatzea.
- m) Deialdia egin duen Udalean ez izatea karrerako funtzionarioak edo eskala, azpieskala edo kategoria bereko lan-kontratuko langile finkorik.
- n) Oinarri espezifikoetan eskatzen den beste edozein betekizun.

**OKONDOKO HARANAREN  
UDALA**  
(ARABA)



**AYUNTAMIENTO DEL  
VALLE DE OKONDO**  
(ALAVA)

Hautaketa-prozesu honetako hautagaiek berariaz onartu beharko dute beren datu pertsonalak oinarri hauetan adierazitako moduan eta adierazitako helbururako erabiltzea.

2.1 – Baldintzak betetzeko datak.

Plazak lortu nahi dituztenek oinarri orokorretan eta espezifikoetan aurreikusitako baldintzak bete beharko dituzte eskabideak aurkezteko epea amaitu aurretik, 8.1 oinarrian aurreikusitako salbuespenak izan ezik, eta horiek betetzen jarraitu beharko dute karrerako funtzionario gisa lanpostuaz jabetzen diren egunean edo plantillako lan-kontratuko langile finko gisa kontratatzen diren egunean.

2.2 – Baldintzak egiaztatzeko denbora eta modua.

Baldintzak egiaztatzeko denbora eta modua 8. oinarrian daude ezarrita.

3-Ezgartasuna duten pertsonen sarbidea.

4- Hautatzeko baldintza orokorrak.

Lanpostuak betetzeko baldintzak ezarrita dituzten lanpostuei lotutako plazak ezin izango dituzte, inola ere, baldintzak betetzea egiaztatu ez dutenek bete. Baldintza horiek deialdi bakoitzaren oinarri espezifikoetan zehaztuko dira.

Deialdi bakoitzean, deialdiko plazei lotutako lanpostuei esleitutako baldintza espezifikoak zerrendatuko dira.

Lanpostu jakin batzuek espezialitate jakin bat eskuratzeko betekizuna badute, deialdien oinarri espezifikoek zehaztuko dute egiaztatzeko modua.

5.- Lanpostuak esleitzeko baldintza orokorrak.

Epaimahaiak ezin izango du proposatu jende gehiago sartzea, karrerako funtzionario edo lan-kontratuko langile finko gisa deitutako plazetatik gora, honako kasu hauetan izan ezik:

a) Honako egoera hauetakoren bat gertatzen denean:

- Izendatu edo karguaz jabetu aurretik hautatutako pertsona batzuek uko egiten badute, edo
- Hautagaiek 15. oinarrian xedatutakoaren arabera eskatutako dokumentazioa aurkezten ez badute. Edo hautagaiek aurkeztutako agirietatik 2. oinarrian eskatutako

**OKONDOKO HARANAREN  
UDALA**  
(ARABA)



**AYUNTAMIENTO DEL  
VALLE DE OKONDO**  
(ALAVA)

baldintzaren bat ez dutela betetzen ondorioztatzen bada. Edo dagozkion zereginak betetzeko eska badute.

Kasu horietan, epaimahaiak hautaketa-prozesua gainditu duten pertsonen zerrenda erabiliko du eta behar diren hautagaien aldeko izendapen osagarriaren proposamena egingo du. Hori guztia hautaketa-prozesua gainditu dutenen behin betiko zerrendaren puntuazio-ordenaren arabera. Horrela, hautatuztat joko dira aipatutako inguruabarren ondorioz hutsik geratu diren plazen kopuru bera duten hautagaiak.

b) Lanpostuaz jabetzeko unean lanpostua erreserbatu gabeko eszedentzia-eskaerak egiten direnean, eta egonkortze-deialdietan plaza lortzeagatik lanpostua erreserbatu gabeko eszedentzia-eskaerak egiten direnean, hutsik geratzen diren plazak esleituko dira. Horretarako, aurreko kasuan bezala, epaimahaiak egindako hautaketa-prozesua gainditu duten pertsonen zerrenda erabiliko du.

Lanpostuaz jabetzeko unean eszedentzia-egoerara igarotzeko inguruabarrak baliozkoak izateko, izendapen-proposamena jakinarazi eta gehienez ere 15 eguneko epean egin beharko da eskaera.

#### 6- Argitalpenak eta iragarki-taula.

Hautaketa-prozesuen deialdiak dagozkien aldizkari ofizialetan argitaratuko dira, eta, gainera, Okondoko Udalaren iragarki-taulan eta webgunean ere bai.

Hautaketa-prozesuan zehar, bere garapenari buruzko informazio guztia Okondoko Udalaren iragarki-taulan eta webgunean argitaratuko da, jakinarazpen ondoretarako.

#### 7- Eskabideak aurkeztea

##### 7.1- Prozesuan onartzea.

Parte hartu nahi dutenek eskabide-ereduan adierazi beharko dute zein hautaketa-prozesutan parte hartu nahi duten eta zein plaza lortu nahi dituzten, nahiz eta laneko eskala/azpieskala/klase edo kategoria berekoak izan.

Hautaketa-prozesuetan onartua izateko eta, hala badagokio, parte hartzeko, honako baldintza hauek bete beharko dira: 1) eskabidea atal guztietan betetzea, 2) epearen barruan aurkeztea eta 3) langileak hautatzeko deialdietan izena ematea.

Era berean, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean bete beharko dira eskatutako baldintza guztiak, 8.1 oinarrian elkargoko kide egiteari, espezialitateari eta euskararen ezagutzari buruz aurreikusitakoa izan ezik; azken kasu horretan, 8.10 oinarrian aurreikusitakoaren arabera egiaztatuko da.

**OKONDOKO HARANAREN  
UDALA**  
(ARABA)



**AYUNTAMIENTO DEL  
VALLE DE OKONDO**  
(ALAVA)

7.2. – Eskabideak aurkezteko era.

Eskabideak egoitza elektronikoan deialdiaren fitxan argitaratutako inprimakiaren arabera egingo dira, 39/2015 Legearen 66.6 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Aurrekoaz gain, eredu ofizial eta normalizatu bat ere egongo da, Udalaren webgunean eskuragarri egongo dena (enplegu publikoko eskaintza), eskabideak aurkezteko epea irekitzen den unean.

Paperezko inprimakia inprimaki elektronikoaren berdina izango da, eta edukiak eskatzen duen zehaztasunarekin bete beharko da. Nolanahi ere, hautagaiak puntuazioa kalkulatu beharko du, plazari dagozkion oinarri espezifikoetan ezarritako merezimenduen baremoa aplikatuta, autobalorazioarako laguntza-aplikazio baten bidez. Aplikazio hori toki-erakundearen webgunean eta haren egoitza elektronikoan egongo da eskuragarri.

Onartuak izateko eta dagozkien hautaprobetan parte hartzeko, nahikoa izango da eskabide-orrian bere erantzukizunpean adieraztea eskatutako baldintza guztiak betetzen direla, betiere aurkezteko epea amaitzen den egunari dagokionez.

Parte hartzeko eskabidearekin batera, ez da aurkeztu beharko parte hartzeko baldintzak eta alegatutako merezimenduak betetzen direla egiaztatzen duen agiririk. Nahikoa izango da hautagaiak, beren erantzukizunpean, adieraztea parte hartzeko eskabidea aurkezteko epea amaitzen den egunean prozesuan parte hartzeko eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituztela, hizkuntza-eskakizuna izan ezik, eta deialdia argitaratzen den egunean alegatu eta autobaloratzen diren merezimenduak egiazkoak eta zehatzak direla. Nolanahi ere, bi kasuetan, alkatetzak edo dagokion epaimahai kalifikatzaileak egiaztatu ahal izango ditu gero, edo, hala badagokio, hautagaiak alegatutako merezimenduak egiaztatu eta epaimahai kalifikatzaileak egiaztatu ahal izango ditu, 8. eta 14. oinarrietan ezarritakoaren arabera.

Parte hartzeko baldintzak eta eskabidean alegatutako merezimenduak agiri bidez egiaztatu beharko dituzte, dagokion unean, alkatetzak edo dagokion epaimahai kalifikatzaileak horretarako berariaz eskatutako pertsonak soilik, 8. eta 14. oinarrietan ezarritakoaren arabera.

Oinarri hauen eta egonkortzeko hautaketa-prozesuen ondorioetarako, parte hartzeko eskabidean hautagaiak parte hartzeko baldintzak betetzen dituela eta bertan alegatutako merezimenduak dituela adieraztea erantzukizunpeko adierazpentzat hartuko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 64. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Euskararen informazioari buruzko eskabidearen epigrafean, hala badagokio, eskatutako hizkuntza-eskakizuna duten adieraziko da nahitaez. Horrez gain, euskara-azterketa egin

**OKONDOKO HARANAREN  
UDALA**  
(ARABA)



**AYUNTAMIENTO DEL  
VALLE DE OKONDO**  
(ALAVA)

nahi duenak, zein maila egiaztatzeko azterketa egin nahi duen berariaz zehaztu beharko du.

7.3.- Eskabideak aurkezteko modua.

7.3.1 Eskabideak eta eskatutako dokumentazioa aurkezteko tokiak:

a) Eskara elektronikoa egoitza elektronikoan:

[https://epeople2023.araba.eus/eu/izapidetu/nombre\\_entidad](https://epeople2023.araba.eus/eu/izapidetu/nombre_entidad) (bakarrik CCASAKo erakundeak).

Aurkezpen elektronikoa aukeratuz gero, programak onartutako identifikaziorako eta sinadura elektronikorako bitarteko bat eduki beharko duzu.

b) Aurrez aurreko eskaera: Udal bakoitzak aukeratuko du, bakoitzaren ordenantzen arabera.

Udaleko erregistro eta herritarren arretarako bulegoan, Zudubiarte 2-an kokatuta..

Eskabidea Herritarren Erregistro eta Arreta Bulegoetako batean aurkeztea, hitzordua eskatu behar da Okondoko udalean.

7.3.2. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan zehaztutako edozein lekutan ere aurkeztu ahal izango dira.

Administrazioarekin elektronikoki harremanetan jartzera behartuta dauden legezko langileen kasuan, aurkezpena egoitza elektronikoan egingo da.

Udaleko Alkatetzara joko dute. Antzeman daitezkeen egitatezko akatsak edozein unetan zuzendu ahal izango dira, ofizioz edota interesdunak eskatuta.

Hautagaiek eskabidean emandako informazio guztia tratamendu-jarduera batean sartuko da, eta hautaketa-prozesua kudeatzeko baina ez da erabiliko. Tratamendu-jarduera horren erabilera eta funtzionamendua Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legean aurreikusitakora egokituko dira. Ofizioz egiaztatu edota espedientean sartuko dira, interesdunak berariaz kontrakoa adierazi ezean, honako baldintza/informazio hauek:

- o Nortasun-datuak egiaztatzea



**OKONDOKO HARANAREN  
UDALA**  
(ARABA)



**AYUNTAMIENTO DEL  
VALLE DE OKONDO**  
(ALAVA)

- o Titulazio akademikoak (unibertsitatekoak zein unibertsitatez kanpokoak)
- o Hizkuntza-eskakizun altuena (Euskara)
- o Ikastaroen ziurtagiria: IVAPen bidez (Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea) egindako eta gainditutako ikastaroen zerrenda.
- o Gidabaimenak (DGT) edo IT Txartelak (erakunde ziurtatzailea)

Aurkeztu beharreko agiriak deialdia egin duen Udalaren esku daudenean, ez da beharrezkoa izango berriro aurkeztea, betiere agiriak zein egunetan eta zein bulegotan entregatu diren adierazten bada, eta prozedura amaitu zenetik bost urte baino gehiago igaro ez badira.

#### 7.3.3.-Tasak

#### 7.4.- Eskabideak aurkezteko epea.

Deialdiaren laburpena Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hogeit (20) egun balioduneko epean aurkeztu beharko dira.

#### 7.5.- Eskabideen akatsak.

Eskabidea garaiz eta behar bezala aurkezten ez bada, hautagaia kanpoan geratuko da.

Hala ere, 39/2015 Legearen 68. artikularekin bat etorritik, eskabideetan akatsen bat egonez gero, interesdunari eskatuko zaio, udaletxeko iragarki-taulan eta iragarkia jarritik Okondoko webgunean (enplegu publikoaren eskaintza), hamar egun balioduneko epean dokumentazio falta zuzen dezan, hautagaia behar bezala sinatutako erantzukizunpeko adierazpenaren arabera. Era berean, jakinarazi egingo zaio, hala egin ezean eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, horretarako ebazpena eman ondoren.

Hautaketa-prozesuak eskatzen duen dokumentazio hori eta gainerako dokumentazioa zazpigarren eta hamalagarren oinarrietan adierazten den moduan bakarrik aurkeztuko dira.

Osorik edo zati bat ordaindu ez bada zuzendu ahal izango da soilik Eskatzaileak alegatutako salbuespenaren onuradun izateko baldintzak betetzeari buruz egindako akatsaren ondorio denean. Horretarako, hamar eguneko epea emango zaio pertsonari akatsa zuzentzeko.

8. – Betekizunak eta merezimenduak. Erreferentzia-datak, deskribapena, alegazioa eta egiaztapena.

**OKONDOKO HARANAREN  
UDALA**  
(ARABA)



**AYUNTAMIENTO DEL  
VALLE DE OKONDO**  
(ALAVA)

8.1. – Merezimenduak betetzeko erreferentzia-datak eta parte hartzeko baldintzak. Alegatzen diren merezimenduak eta betekizunak edukitzeko erreferentzia-data eskabideak aurkezteko epea amaitzen den eguna izango da, honako kasu hauetan izan ezik:

- Euskararen ezagutza, 8.10 oinarrian ezarritakoaren arabera egiaztatu beharko dena.
- Dagokion elkargo profesionalean elkargokide izatea, lanbide arautu bati dagozkion eginkizunak betetzen dituzten eskalak edo lanpostu zehatzak direnean. Lanpostuaz jabetzeko unean egiaztatu beharko da hori.

Eskabidea aurkeztean eta merezimenduen alegazioa eta auto-balorazioa egitean, hautagaiak ez du aurkeztu beharko parte hartzeko baldintzak eta alegatutako merezimenduak egiaztatzen dituen dokumenturik, 7.2 oinarrian jasotakoaren arabera.

8.2. – Eskakizunak eta merezimenduak alegatzea.

Parte hartzeko baldintza orokorrak, deitutako plazei lotutako lanpostuen betekizun espezifikoak eta merezimenduak ere, eskabideak aurkezteko epean alegatu beharko dira.

8.3. – Eskakizunak eta merezimenduak egiaztatzea.

8.3.1. – Onartutako eta baztertutako hautagaien behin betiko zerrenda onartzen duen Alkatezaren ebazpenean, 10.1 oinarrian ezarritakoaren arabera auto-balorazio handiena duten hautagaiei eskatuko die 10 egun balioduneko epean, errekerimendua argitaratzen denetik zenbatzen hasita, eskabidean alegatutako merezimenduak eta, hala badagokio, parte hartzeko egokitzat jotzen dituzten baldintzak agiri bidez egiaztatzen.

Izapide honetan ezin izango da merezimendu berririk alegatu, ezta parte hartzeko eskabidean alegatutakoak aldatu ere. Aipatutako errekerimendua eskabidean alegatutako merezimendu guztiei buruzkoa izango da.

Alegatutako merezimenduak egiaztatuko dira, kasuan kasu, dagozkion erregistroei, administrazio publikoetako datuak kontsultatzeko plataformari edo ziurtagiria ematen duen erakundeari kontsulta eginez.

Kontsulta horiek kasu guztietan egingo dira, salbu eta eskatzailearen aurkakotasun arrazoitua agertzen bada eta tratamendu-jarduketaren ardura duen organoak ikusten badu.

Aurkakotasun arrazoitua agertuz gero, aurkakotutako dokumentuak aurkeztu beharko dira aurkakotasunarekin batera.

8.3.2. – 14. oinarrian xedatzen den bezala, hautatutako pertsonek, karrerako funtzionario edo lan-kontratuko langile finko izendatu aurretik, honako merezimendu eta baldintza hauek betetzen dituzten agiriak aurkeztu beharko dituzte:

- epaimahai kalifikatzaileak ezin izan du egiaztapenik egin, edo

**OKONDOKO HARANAREN  
UDALA**  
(ARABA)



**AYUNTAMIENTO DEL  
VALLE DE OKONDO**  
(ALAVA)

- hautagaiak egiaztapen horren aurka jo du eta organo eskudun jakitun da.
- Hala ere, epaimahai kalifikatzaileak prozeduraren aurreko edozein unetan eskatu ahal izango du dokumentazio hori aldeztatik aurkeztea. Kasu horretan, dokumentazioak oinarri orokor hauen 14. oinarrian ezarritako baldintzak bete beharko ditu.

8.4. –Ezgaitasuna duten pertsonak.

8.5. – Esperientzia eta antzinatasuna.

Administrazio publikoetan emandako zerbitzuen esperientzia funtzionalki antzekoak diren plazei lotutako lanpostuak lortzeko baloratuko da.

- Deialdia egin duen Udalean egindako zerbitzuak alegatu egin beharko dira, eta ofizioz zenbatuko dira.

- Gainerako herri-administrazioetan egindako zerbitzuak egiaztatzeko agiriaren kopia sinple batekin alegatu beharko dira. Dokumentu horrek, administrazio bakoitzak erabakitzen duen ereduari, lan egindako aldiak banakatu beharko ditu, eta plazari lotutako lanpostuaren taldea, kidegoa, aukera, eskala, azpieskala, mota edo kategoria eta izena zehaztu beharko ditu.

Ondorio horietarako, honako hauek baloratuko dira: hautagaiak senitartekoak zaintzeko edo genero-indarkeriagatiko eszedentzia-egoeran egon diren denbora; lanaldi-murrizketei edo baimenei egotz dakiekeen denbora, amatasuna eta aitatasuna babestea edo bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa modu erantzukidean uztartzea helburu duena, bai eta enplegatu publikoek genero-indarkeriagatiko baimenak baliatu dituzten denbora ere, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabeko bizitzarako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20. artikulua araberako (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea bigarren aldiz aldatzen duen martxoaren 3ko 1/2022 Legeak aldatu zuen lege hori).

8.6. – Titulazioak.

Titulazioen alegazioa, bai betekizun gisa, bai merezimendu gisa, dagokion izapidean deklaratu egingo da, 8.2. paragrafoan xedatutakoaren arabera.

Atzerriko tituluaren kasuan, tituluaren kopia soila ere aurkeztu beharko da, bai eta homologazioa egiaztatzen duen egiaztagirirena ere, kalifikazio-epaimahaiak hala eskatzen duenean.

8.7. – Hizkuntzak.

Abenduaren 22ko 1041/2017 Errege Dekretuan maila eta hizkuntza bakoitzerako jasotzen diren tituluak eta ziurtagiriak baino ez dira baloratuko. Errege-dekretu horrek, oinarriko izaerarekin, hainbat ikasketa-planetan araututako araubide bereziko

**OKONDOKO HARANAREN  
UDALA**  
(ARABA)



**AYUNTAMIENTO DEL  
VALLE DE OKONDO**  
(ALAVA)

hizkuntza-irakaskuntzen eta errege-dekretukoen arteko baliokidetasunak ezartzen ditu, betiere horiek lotura badute deitutako plazei lotutako lanpostuen eduki funtzionalarekin.

- Hizkuntza Eskola Ofizialek emandako tituluak eta ziurtagiriak merezimenduak alegatzeko epean aurkeztu beharko dira.
- Beste erakunde batzuek emandako tituluak eta ziurtagiriak. Aitorpenaz gain, egiaztagiraren kopia soila ere aurkeztu beharko da.

8.8. – Informatikako ezagutzak.

Informatikako ezagutzak IT Txartela ziurtagiriaren sistemaren bidez egiaztatuko dira, eta merezimenduak alegatzeko epean alegatu beharko dira.

8.9. – Karrerako funtzionario edo lan-kontratuko langile finko izateko prozeduretan probak gainditzea.

Merezimenduak alegatzeko izapidean egindako deklarazioaren bidez alegatuko dira, data zehatzak eta erreferentziako EPE adieraziz, eta ofizioz baloratuko dira, oinarri espezifikoean ezartzen diren baldintzetan, honako merezimendu hauek:

- Deialdia egin duen Administrazioan karrerako funtzionario edo lan-kontratuko langile finko izateko prozeduran oposizio-fasea gainditzea, plazarik lortu gabe, baldin eta Enplegu Eskaintza Publikoaren bidez egin bada eta horren deialdia BOEn argitaratu bada.

8.10. – Euskararen hizkuntza-eskakizuna egiaztatzea.

Euskara-azterketa nahitaezkoa eta baztertzaila izango da derrigorrezko eta borondatezko hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuetan, eta ez baztertzaila gainerako lanpostuetan. Euskararen derrigorrezko azterketa eta azterketa baztertzaila gainditzen edo egiten ez duten hautagaiek hautaketa-prozedurarekin jarraituko dute derrigortasun hori duten lanposturik ez duten lanpostuetan, eta, hala badagokio, ariketa honetan lortutako kalifikazioa zenbatuko da.

Okondoko Udalean hizkuntza-eskakizunen bat egiaztatuta dutenek ez dute berriro egiaztatu beharko parte hartzen duten hautaketa-prozesuan, ezta Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan egiaztatuta daudenean ere. Era berean, apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan jasotako egiaztapen-salbuespenen kasuan, ez da beharrezkoa izango dagokion ziurtagiri akademikoa aurkeztea. Dekretu hori euskaraz egindako ikasketa ofizialak onartzeari eta euskara-titulu eta -ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteari buruzkoa da eta salbuespen hori Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan dagoeneko agertzen denean aplikatzen da.

**OKONDOKO HARANAREN  
UDALA**  
(ARABA)



**AYUNTAMIENTO DEL  
VALLE DE OKONDO**  
(ALAVA)

Euskara Tituluen eta Ziuertagiriaren Erregistro Bateratuan agertzen ez badira salbuespen horretatik kanpo daude eta dagokion ziuertagiri akademikoa aurkeztu beharko da, 47/2012 Dekretuan jasotako egiaztapen-salbuespenen kasuei dagokienez.

Nolanahi ere, edozein euskara-titulu edo -ziuertagiri egiaztatzeke gehieneko epea euskara-ariketa egiten den eguna izango da.

Dagozkion egiaztapenak egiteko, interesdunak berariaz emango dio baimena Okondoko Udalarari egiaztapena egiaztatzeke edo aipatutako erregistroan salbuesteko.

Edonola ere, interesdunak Euskara Tituluen eta Ziuertagiriaren Erregistro Bateratuan kontsulta ditzake bere datuak, honako esteka honen bidez: <https://www.euskadi.eus/euskara-tituluen-eta-ziuertagiriaren-erregistro-bateratua/web01-a2etzeb/eu/>

Hizkuntza-eskakizunen ziuertagiri eta titulu baliokideak honako hauetan zehazten dira: 297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziuertagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeke dena. Eta 47/2012 Dekretua, apirilaren 3koa, euskaraz egindako ikasketa ofizialak onartu eta euskarazko tituluekin eta ziuertagiriekin egiaztatzeke salbuesteko dena.

8.11. – Lanpostuen betekizun espezifikoak.

Lanpostuen zerrendan betekizun espezifikoak esleituta dituen plaza bati lotutako lanpostu bat esleitu ahal izateko, hautagaiak alegazioa egin beharko dute 8.2 oinarrian ezarritako epean, oinarri espezifikoetan horietako bakoitzerako zehazten den moduan.

#### 9- Hautagai-zerrendak onartzea

9.1.- Eskabideak aurkezteke epea amaitu eta eskabideetako akatsak zuzentzeke izapidea amaitu ondoren, Alkatetzak ebazpena emango du behin betiko onarpen, bazterteke eta atzera egiteen zerrendak onartzeke, hautagaiak behar bezala sinatutako erantzukizunpeko adierazpenarekin bat etorritz. Adierazpen hori Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean, Udaleko iragarki-taulan eta Okondoko webgunean argitaratuko da.

Zerrenda hori eskatzaile bakoitzak eskabidean betetako erantzukizunpeko adierazpeneko datuen arabera egingo da.

Zerrendetan honako hauek jasoko dira: hautagaien izena eta bi abizenak, Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakia, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren zazpigarren xedapen

**OKONDOKO HARANAREN  
UDALA**  
(ARABA)



**AYUNTAMIENTO DEL  
VALLE DE OKONDO**  
(ALAVA)

gehigarrian xedatutakoaren arabera, baita prozesutik kanpo geratzen diren pertsonak ez onartzeko arrazoia ere.

Gainera, zerrenda horietan argitaratuko da, behin-behinean, Autobalorazio Formularioan lortutako puntuazio osoa, hautagai bakoitzak behar bezala sinatutako erantzukizunpeko adierazpenean adierazitakoaren arabera, Epaimahai Kalifikatzaileak baloratuko dituen eskabide-kopurua (eta horiekin berdinduta daudenak) zehazteko.

9.2.- Onarpenen, bazterketen eta atzera egiteen zerrendak onartzen dituen Alkatetzaren ebazpenaren aurka aukerako berraztertzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Alkatetza-Lehendakaritzari, hilabeteko (1) epean, Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Baztertutako pertsonak merezimenduaren baloraziora aurkeztu ahal izango dira, baita euskara-proba egitera ere, kautelaz, baldin eta kanporatzearen aurkako errekurtsua aurkeztu dutela egiaztatzen bada eta baldin eta egun horretarako errekurtsua ebatzi ez bada.

Lehiaketaren kalifikazioa argitaratzen den egunean jarritako errekurtsua ebatzi ez bada, interesdunek kautelaz egin ahal izango dute euskara-proba. Kautelaz egindako ariketek ez dute inolako baliorik izango errekurtsua ezesten bada.

9.3.- Onarpenen zerrendan agertzeak ez du esan nahi interesdunei aitortzen zaienik hautaketa-prozesuan eskatutako baldintzak betetzen dituztela. Azkenean pertsona hautatua izango balitz, izendapenaren aurretik aurkeztu behar den dokumentaziotik baldintzaren bat ez dutela ondorioztatzen bada, prozedura honetan parte hartzetik erator daitezkeen eskubide guztiak galduko dituzte.

Hautaketa-prozesuaren edozein unetan, epaimahaiak jakiten badu deialdian parte hartzeko baldintzaren bat betetzen ez duten hautagaiak daudela, interesdunari entzun ondoren, baztertzeko proposamena egin beharko dio organo eskudunari, eta parte hartzeko eskabidean pertsona horrek egindako zehaztasun ezak edo faltsutasunak jakinarazi beharko dizkio.

10. – Hautaketa-prozedura

**OKONDOKO HARANAREN  
UDALA**  
(ARABA)



**AYUNTAMIENTO DEL  
VALLE DE OKONDO**  
(ALAVA)

10.1.- Hautaketa-prozedura lehiaketa izango da, 20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrietatik eratorritako iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko deialdi honetan. Bi txanda egongo dira: librea eta ezgaitasuna duten pertsonena, deialdiaren oinarri espezifikoean ezarritakoaren arabera.

Lehiaketa honetan, Epaimahai Kalifikatzaileak aztertu eta baloratuko ditu Auto Balorazioko Formularioan alegatutako eta eskabide-kopuruaren arabera kreditatutako merezimenduak, hamargarren oinarri honetan eta deialdi bakoitzeko oinarri espezifikoean ezarritakoaren ildotik.

Alkatetzaren onarpenen, bazterketen eta atzera egiteen ebazpenetik eratorritako zerrenda Auto Balorazioaren Formularioan lortutako guztizko puntuazioaren arabera ordenatuko da, Epaimahai Kalifikatzaileak baloratuko dituen eskabide-kopurua (eta horiekin berdinduta dauden guztiak) zehazteko, deialdi bakoitzeko oinarri espezifikoean ezarritakoaren arabera eta kategoria bakoitzerako deitutako plazen arabera, honako eskala honen arabera:

- Deitutako 5 plaza edo gutxiago: deitutako plazak bider 5
- Deitutako 5 plaza baino gehiago eta gehienez 10: deitutako plazak bider 4
- Deitutako 10 plaza baino gehiago: deitutako plazak bider 3

Aurrekoari kalte egin gabe, hautagai-zerrenda bideragarririk ez badago, Alkatetzaren onarpen, bazterketa eta atzera egiteen ebazpenetik eratorritako zerrenda erabiltzea erabakitzen bada, jarduketa hori bertan agertzen den puntuazio-ordena zorrotza errespetatuz egingo da.

Eskaera-orrietan jasotako merezimenduak neurtzeko eskalak barnean hartuko ditu hizkuntza-eskakizuna egiaztatu gabe duten pertsonak, hizkuntza-eskakizuna nahitaezkoa den lanpostuetan. Baina kasuan kasuko euskara-azterketa egiteko izena eman badute eta azterketa gaudituz egokituko litzaiekeen puntuazioa adierazita. Derrigortasunik gabeko plazen kasuan ere egokituko litzaiekeen puntuazioa emango zaio.

10.2.- Euskara-azterketa nahitaezkoa eta baztertzaila izango da derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna duen lanposturen bat duten lanpostuen kasuan, salbu eta hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta badute, eta borondatezkoa eta ez baztertzaila gainerako lanpostuetan. Euskararen derrigorrezko azterketa eta azterketa baztertzaila gauditzen edo egiten ez duten hautagaiek hautaketa-prozedurarekin jarraituko dute derrigortasun hori duten lanposturik ez duten plazetan, eta, hala badagokio, ariketa honetan lortutako kalifikazioa zenbatuko da.

**OKONDOKO HARANAREN  
UDALA**  
(ARABA)



**AYUNTAMIENTO DEL  
VALLE DE OKONDO**  
(ALAVA)

Euskara-azterketa egin ahal izango dute prozesuan parte hartzen duten pertsonak, baldin eta lehiaketa-fasean oinarri espezifikoean adierazitako gutxieneko puntuazioa lortu badute.

Okondoko Udalean hizkuntza-eskakizunen bat egiaztatuta dutenek ez dute berriro egiaztatu beharko parte hartzen duten hautaketa-prozesuan, ezta Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan egiaztatuta daudenean ere. Era berean, apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan jasotako egiaztapen-salbuespenen kasuan, ez da beharrezkoa izango dagokion ziurtagiri akademikoa aurkeztea (47/2012 Dekretua, apirilaren 3koa, euskaraz egindako ikasketa ofizialak onartzeari eta euskara-titulu eta -ziurtagirien bidez egiaztatetik salbuesteari buruzkoa), salbuespen hori Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan dagoeneko agertzen denean.

Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan agertzen ez badira, ezingo dira aukera horretaz baliatu eta dagokion ziurtagiri akademikoa aurkeztu beharko dute, 47/2012 Dekretuan jasotako egiaztapen-salbuespenen kasuan.

Dagokion egiaztapenak egiteko, interesdunak berariaz baimena emango dio Okondoko Udalari egiaztapena egiaztatzeko edo aipatutako erregistroan salbuesteko.

Edonola ere, interesdunak Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan kontsulta ditzake bere datuak, esteka honen bidez: <https://www.euskadi.eus/euskara-tituluen-eta-ziurtagirien-erregistro-bateratua/web01-a2etzeb/eu/>

Deialdiko euskara-azterketa egin arte egiaztatu ahal izango da lortutako hizkuntza-eskakizuna. Eta eskabidean hala eskatu dutenek bakarrik aurkeztu ahal izango dute.

**10.3. – Lehiaketa-fasearen kalifikazioa**

Deialdiko merezimenduen baremoaren arabera esleitutako puntuen baturak zehaztuko du lehiaketa-fasearen balorazioa.

**10.4. – Lehentasun-klausula.**

